



EGITASMOAREN IZENA

AUZOKO

"ZUBI BAT EUSKARATIK" DEKALOGOKO ZEIN OINARRIRI ERANTZUTEN DIO

- * Harrera inguistikoa, ez formala eskaini
- * Parte hartze sozialerako aukerak sortu
- * Hizkuntzak eta euren arteko harremanak kudeatu
- * Euskararen eta aniztasunaren inguruko usteak deseraiki
- * Euskara ikasteko aukera berdintasuna bermatu
- * Ardura partekatzeko aliantzak egin

AZALPEN LABURRA

Auzoko hizkuntza harrera egitasmoa da. Bertan herrietako hizkuntza aniztasuna modu positiboan islatzen dugu; hizkuntza desberdinetako herritarrak harremanetan jartzen ditugu eta harreman sareak sorrarazten ditugu. Hau da, gure herrietan hizkuntza desberdinetan bizi diren herritarren topaleku izatea du xede Auzokok. Gainera, topaleku horiek dira euskaltzaleen mugimenduak bizikidetzara ulertzeko duen moduaren eredu: Auzokok bizikidetzarako UNEAK eta GUNEAK sortzen ditu.

HELBURUAK

Auzokok hiru helburu ditu:

1. Euskaratik urrun bizi direnei euskararako harrera ez formala egitea. Hizkuntza harrera egin nahi diegu, euskara guztien esku jarri nahi dugu, hizkuntza kalean, jende artean ikasteko aukerak sortuz, hori baita hizkuntza bat norbereganatzeko modurik naturalena.
2. Herritarrak gure herrietako hizkuntza aniztasunaz jabetzea eta aniztasuna modu positiboan islatzea.
3. Hizkuntza desberdinetako herritarrak harremanetan jartzea eta harreman horietan euskara kohesio hizkuntza izatea.

HARTZAILE ZUZENA(K)

Herritar heldu oro.

FUNTZIONAMENDUA

Bi rol banatzen dira parte hartzaileen artean:

- * Auzokideak: euskaratik gertu bizi diren herritarrak
- * Auzotarrak: euskaratik urrun bizi diren herritarrak

Astean behin elkartzen dira taldeak eta asteroko saioez gain, ekintza osagarriak egiten dira. Horiek herriko eragileekin elkarlana bultzatzen dute, baita elkar ezagutza ere.

Martxan dauden herrietako koordinazioa zein harremana "auzoko batzordearen" bitartez egiten da.

NON MARTXAN [2021-2022]

- * Arrasate
- * Soraluze
- * Ibarra
- * Eskoriatza
- * Oñati
- * Gasteiz
- * Aretxabaleta
- * Donostia

ANTOLATZAILEA(K)

- * Euskaltzaleen Topagunea (Ibarran, Eskoriatzan, Gasteizen, koordinazio orokorra)
- * Ekin Emakumeak Elkarte (Arrasaten)
- * Loramendi Kultur Elkarte (Aretxabaletan)
- * Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte (Donostian)
- * Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarte (Soraluzen)
- * Txatxilipurdi Elkarte (Oñatin)

KONTAKTUA

aniztasuna@topagunea.eus